

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Nazioarteko Plan berriak esportazioak areagotu nahi ditu; orain BPGren % 15 dira

*Iruñean egiten ari dira Espainiako Internazionalizazioaren Lurralde arteko Kontseiluaren saioa*

Martes, 26 de junio de 2012

Lourdes Goicoechea Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilaria izan da buru [Internazionalizazioaren Lurralde arteko Kontseiluaren](#) irekieran. Kontseilua 2006an sortu zen kanpoko merkataritza sustatzeko organo gisa. Bertan parte hartzen dute autonomia erkidegoek, sektore pribatuak eta estatuak, [Kanpo Merkataritzaren Institutuaren \(ICEX\)](#) bidez.

Bilera Iruñean egin da, [Nafarroak izan duelako 2012ko lehen seihilekoan Kontseiluaren lehendakaritza](#). Saioan izan dira María del Coriseo González-Izquierdo ICEXeko kontseilari delegatua, Carlos García de Quevedo Merkataritzako Estatu Idazkaritzako Invest in Spain organismoko kontseilari delegatua, [Espainiako Enpresa Elkarten Konfederazioko](#) ordezkariak eta nazioarteko merkataritzaren arloko autonomia erkidegoetako berrogeita hamar arduradun.

Bileraren helburua autonomia erkidegoen arteko lankidetzaz-azterak aztertzea izan da, enpresak nazioartera zabaltzea hobetzeko, eta enpresak kanpoan sustatzeko eta Espainian inbertsioak egitera bultzatzeko politika bateratuak sustatzeko. Eguneko ekitaldi nagusia Willy Alfaro [Munduko Merkataritza Antolakundeko merkataritza-politikak aztertze arloaren](#) kontseilari nagusiak egin duen hitzaldia izan da, nazioarteko merkataritza-aukerari buruzkoa.



Internazionalizazioaren Lurralde arteko Kontseiluaren hasiera. Ezkerretik eskuinera: Willy Alfaro (OME), González Izquierdo (Icex), Goicoechea lehendakariordea eta García de Quevedo (Invest Spain).



Internazionalizazioaren Lurralde arteko Kontseilura joan direnak, Iruñean.

Bileraren irekieran, Lourdes Goicoechea kontseilariak azaldu du une honetan 2013-2016ko [Nafarroako Nazioarteko Plana](#) prestatzen ari direla, enpresak nazioartera zabaltzearen alderdia hobetze aldera, [Moderna Planean](#) jasotzen den moduan.

Lourdes Goicoecheak esan duenaren arabera, 2000 enpresa esportatzaile daude, eta horietatik 750ek modu iraunkorrean esportatzen dute. Kontseilariak azaldu du Nafarroako Nazioarteko Planean jasotako Nafarroako Gobernuaren erronketako bat kopuru hori handitzea dela, enpresa berriak ezarrita zein nazioartean esperientziarik izan dutenen nazioarteko estrategia indartuta.

2011. urtearen amaieran, Nafarroak 2.799,9 milioi euroko merkataritza-saldo positiboa zuen, hau da, BPGren % 15a. Foru Komunitatea estaldura-tasa handiena duen komunitatea da (esportazioak eta inportazioak alderatuta), 2011n 152,9 lortu baitzuen.

Zehazki, kanpoko eskariak Nafarroako hazkuntzari egindako ekarpena % 2,1ekoa izan zen 2011n (% 1,5ean zegoen). Aldiz, barneko eskariak % 0,6ko atzerapena izan zuen.

"Gure kanpoko merkataritzaren sendotasuna ziurtatzen duen beste datu bat da esportazioek duten eragina gure BPGan. Iazko ratioa % 40 baino zertxobait altuagoa izan zen. Espainia osoko ondasunen esportazioak, ordea, BPGren % 17 izan ziren", azaldu du Nafarroako Gobernuko Ekonomia kontseilariak.

### **Eztabaidagunea**

Internazionalizazioaren Lurralde arteko Kontseilua eztabaidarako gunea eta administrazio zentralaren, autonomia erkidegoen eta sektore pribatuaren artean iritzia trukatzeko lekua da, enpresak kanpoan sustatzeko eta atzerriko inbertsioak erakartzeko politika bateratuak diseinatu eta sustatzeko.

Iruñean egin den bileran Kanpoko Sustapenerako Organismoen Arrazionalizazio Plana aztertu da. Horrek, interesa duten autonomia erkidegoei proposamena egin die bulegoak Espainiatik kanpo jartzeko, atzerrian dauden Espainiako enbaxadetako Ekonomia eta Merkataritza Bulegoetan. Helburua kostuak murriztea eta enpresentzako arreta hobetzeko adostasuna sortzea da.

José Carlos García de Quevedo Invest in Spain erakundeko kontseilari delegatuak egin duen mintzaldian bulegoen sare horren garrantzia nabarmendu du, proiektuak erakartzeko eta nazioarteko inbertsiogileekin